

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 35/2019 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa. Onestea hauteskundeetako gastuetarako dirulaguntza eta aurrerakinen araubidea, 2019ko maiatzaren 26an Batzar Nagusietarako egindako hauteskundearen emaitzen arabera**

Hauteskundeetako gastuen finantzaketa publikoak, botere publikoek partaidetza politikoari eta herri borondatea eratzeko prozesuari emandako laguntza eta babes moduan jasotzen da hauteskundeetako buruzko legerian, eta hiru urrats desberdinetan arauturik dago. Lehenengoa, hauteskundeak baino lehenagokoa, hauteskundearen aurreko aurrerakinak emanez, lehenagoko hauteskunde prozesuan lortutako emaitzen arabera; urrats hau Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 9ko 21/2019 Foru Dekretuak arautzen du (ALHAOren 44. alea, apirilaren 10ekoa).

Bigarrena, Hauteskunde araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 133. artikuluan jasotzen dena, aurrerakinak ematean datza; horien zenbatekoak, ALHAOn argitaratutako hauteskunde emaitzen arabera, Batzar Nagusietarako hauteskundeetan gutxienez ahaldu bat lortu duten antolakunde politikoek jaso behar luketen dirulaguntzaren ehuneko 90ekoak dira, hauteskundearen aurretik jasotako aurrerakina deskontatuta, hala dagokionean.

Hirugarren urratsa, Kontuen Euskal Epaitegiak bidezko tasun irizpena eman ondoren egingo da. Hartan, lortutako emaitzen arabera likidatuko da dirulaguntza, lehenagoko aurrerakin guztiak deskontatuta, hala dagokionean.

Hauteskundearen aurreko aurrerakinak araututa eta ordainduta daudenez, bidezko da orain bigarren urratseko –hau da, hauteskundearen ondoko– dirulaguntza eta aurrerakinen araubidea finkatzea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeetako buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legearen eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan xedatutako erreferentzia bezala hartuz.

Horrela, aipatutako 1/1987 Legearen 11. artikuluan hauteskundeetako gastuen finantzaketa publikoa lurralde historiko bakoitzaren aurrekontuaren kontura dirulaguntza emanez egingo dela xedatzen da. Laguntza hori erregela bikoitz baten arabera zehazten da: 1.a) hautaturiko ahaldu bakoitzeko, Eusko Legebiltzarrerako egin diren azken hauteskundeetan jarlekuko finkatu den dirulaguntzaren ehuneko 40ko diru kopuru finkoa; eta 2.a, hautagai zerrenda bakoitzeko lortutako boto bakoitzeko, udal hauteskundeetarako finkatutako kopuru berbera, baldin eta gutxienez hartako kide bat ahaldu hautaturik gertatu bada.

Lehenengo kalkulurako, Ogasuna eta Finantzen sailburuaren 2016ko abuztuaren 8ko Agindura jo behar da. Agindu horretan, Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetarako, jarleku bakoitzeko dirulaguntza 26.761,89 eurotan ezarri zuen. Horrek berekin dakar hautatutako ahaldu bakoitzeko dirulaguntza 10.704,76 eurokoa izango dela.

Bigarren erregelaren ondoriozko kalkuluari dagokionez, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren, hauteskunde araubide orokorrarenaren, 133. artikulua –urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak eman dion idazkeran– dioenaren arabera, hauteskundeetako jarduerak sortzen dituzten gastuek 0,54 euroko dirulaguntza izango dute hautagai zerrenda bakoitzak lortutako boto bakoitzeko, baldin eta horretako kide bat hautaturik atera bada. Kopuru hori berretsita geratu da apirilaren 3ko HAC/394/2019 aginduan.

Beste alde batetik, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hauteskundearen ondoko aurrerakinak

eskuratzeko beharrezkoa da, alde batetik, Kontuen Epaitegian aldez aurretik hauteskundeetako diru sarrera eta gastuen kontabilitate zehatza eta dokumentatua aurkeztea eta, beste aldetik, hauteskundeen aurreko eta ondoko dirulaguntzen aurrerakinetan aurreratutako zenbateko osoaren ehuneko 10eko banku abala aurkeztea.

Gauzak horrela, Gasteizko eta Amurrioko eskualdeko hauteskunde batzordeek egindako eta ALHAOren 66. alean, ekainaren 7an, argitara emandako boto kontaketa ofizialen emaitzak ikusita, 2019an Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan batzarkideren bat lortu duten alderdi politikoek eta hauteskunde koalizioek ondoko taulan ageri diren dirulaguntzak eta hauteskunde aurrerakinak eskuratzeko eskubidea dute. Bertan, gainera, dagoeneko aurreratutako kopuruak, hala dagokionean, eta Kontuen Euskal Epaitegiak kontuak baliozkotzen dituen garaian ordaintzeko daudenak jasotzen dira:

ALDERDI POLITIKOA EDO HAUTESKUNDE KOALIZIOA 2019	BOTO KP.	BOTO BAKOTZEROKO GUTZIRA, BOTOEN GATIK	JARILERU KP.	JARILERUKO JARILEKUNGATK GUTZIRA	DRILLAG, GUTZIRA BOTO + JARILEKUNGATK	DRILLAG, OSOAREN %90	HAUTESKUNDE AURREKO AURREBAKUNA	HAUTESKUNDE ONDOKO AURREBAKUNA	BEHIN BETIKO LURRALDEA (FALTA DEN %10)
	Euroak	Euroak	Euroak	Euroak	Euroak	Euroak	Euroak	Euroak	Euroak
EAL-PNV	47686 x	0,54 =	17 x	10.704,76 =	207.731,36	186.958,22	47.370,77	139.587,45	20.773,14
EUSKAL HERRIA BILDU	33.954 x	0,54 =	12 x	10.704,76 =	146.792,28	132.113,05	40.625,70	91.487,35	14.679,23
PSE-EE (PSOE)	28498 x	0,54 =	10 x	10.704,76 =	122.436,52	110.192,87	18.416,18	91.776,69	12.243,65
PARTIDO POPULAR	23.223 x	0,54 =	8 x	10.704,76 =	98.178,50	88.360,65	44.050,48	44.310,17	9.817,85
ELKARREKIN PODEMOS (PODEMOS, EZKER ANTZIZA, U. EQUO, BERDEAK)	12.850 x	0,54 =	4 x	10.704,76 =	49.758,04	44.782,24	33.555,01	11.227,23	4.975,80
<b>ARABA GUTZIRA</b>	<b>146.211 x</b>	<b>0,54 =</b>	<b>51 x</b>	<b>10.704,76 =</b>	<b>624.896,70</b>	<b>562.407,03</b>	<b>184.018,14</b>	<b>378.388,89</b>	<b>62.489,67</b>

Dekretu hau izapidetzeko, bete egin dira maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako araupetze onaren printzipioak. Foru dekretu horrek hauek onartzen ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak. Horiek horrela, aurrekarietan nahikoa justifikatu da arautzeko beharra eta, gainera, neurrizko arauketa jarduketara da; izan ere, lortu nahi den helburua erdiesteko gutxieneko ezinbestekoak baino ez baitira arautzen; alegia, hauteskunde batzordeetako kideek eta haien laguntzaileek kobratu beharreko haborokinen zenbatekoak zehaztea.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, posible da jendaurrean jartzeko izapidea ez gauzatzea. Edonola ere, onartu bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatutako arautzea, duen izaera dela-eta, ez dakarke herritarrei ez administrazio karga osagarririk, ez premiazkoa ez denik.

Gainera, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak 15. artikuluan xedatzen duena, eta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legearen 3. eta 23. artikuluetan xedatzen duena betetzeko, arau hau eratzeko emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aplikatu da.

Horregatik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### XEDATU DUT

Lehenengoa. Hauteskunde ondoko aurrerakinak

Martxoaren 27ko 1/1987 Legeak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskunderi buruzkoak, 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeko eskubidea duten alderdi politikoek eta hauteskunde koalizioek, Kontuen Euskal Epaitegiaren jardunak bukatzen ez diren bitartean, aurrerakin moduan eskatu ahal izango dute foru dekretu honen azaltze zatian finkatutako irizpideen arabera dagoen dirulaguntzen zenbatekoaren ehuneko 90 –jasotako lehenengo aurrerakinaren zenbatekoa deskontatuta, hala dagokionean.

Bigarrena. Hauteskunderen ondoko aurrerakinaren eraginkortasuna

1. Hauteskundeetako dirulaguntza aurreratzeko eskaera Arabako Foru Aldundiari aurkeztuko zaio. Horretarako, beharrezkoa izango da Kontuen Euskal Epaitegian alde aurretik hauteskundeetako sarrera eta gastuen kontabilitate zehatza eta dokumentatua aurkeztea, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, hauteskunde araubide orokorrenak, 133. artikuluan adierazten diren epe eta baldintzetan, baita horien aurkezpena frogagiri egokiaren bitartez egiaztatzea ere.

2. Alderdi, koalizio eta federazioek aurrerakin hori jaso ahal izateko, eskabideekin batera aurreratutako guztizko zenbatekoaren ehuneko 10eko banku abala aurkeztu beharko da (hauteskunderen aurretik jasotako aurrerakina barne delarik, hala dagokioenan), baita ere Batzar Nagusiek egindako ziurtapena ere, hautatuek ahaldun izaera osoa eskuratu dutela eta egiaz karguetan dihardutela era sinesgarrian egiaztatzen duena.

3. Esandako baldintzak beteta, Arabako Foru Aldundiak, aurrerakinaren eskabideak aurkeztu eta hurrengo 30 egunen barruan, haiek ordaindu eta Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordean kreditutako administratzaile orokorren eskura ipiniko ditu, batzorde horri ez badiote jakinarazi dirulaguntzak beren osoan edo zati batean ordain dakizkiela izendatzen dituzten banku erakunderi, eman zaizkien aurrerakinak edo kredituak konpentsatzeko. Foru Aldundiak ordainketa egiaztatuko du esandako jakinarazpenean adierazten denaren arabera. Jakinarazpena ezin izango da ezeztatu kreditu erakunde onuradunaren baimenik gabe.

Hirugarrena. Dirulaguntzen likidazioa

Dirulaguntzaren likidazioa, emandako aurrerakinak deskontatu ondoren, Kontuen Euskal Epaitegiak hauteskunde kontabilitateari buruz bidezketasun irizpena eman eta gero egingo da.

Laugarrena. Kreditu kontsignazioa.

1. Aurreko zehaztasunak betetzen dituzten alderdi politikoek eta hauteskunde koalizioak Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskundeengatik jaso ditzaketen hauteskunde ondoko aurrerakinen gehieneko zenbateko osoa 378.388,89 euro da.

2. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak azalpen-atalean zerrendatutako talde politikoei atal horretan adierazitako zenbatekoak esleituko dizkie, gehieneko zenbateko osoa 187.919,53 eurokoa izanik, 2019rako luzatu den 2018ko aurrekontuaren "Batzar Nagusietarako hauteskundearen dirulaguntzak" 02100.0300.480005 partidan, Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 8ko 3/2019 Erabakian jasotakoaren arabera.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 30a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZALEZ VICENTE**

*Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria*

**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**